

Patxi Zubizarreta

Mundua
lo dagoen
bitartean



LEHENENGO EDIZIOA
Tafalla, 2008ko urria

© Txalaparta
© Patxi Zubizarreta

EDITORIAL TXALAPARTA E.M.L.
Navaz Vides, 1-2
78 Posta-kutxa
31300 Tafalla NAFARROA
Tel. 948 703 934
Faxa 948 704 072
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

INPRIMAKETA
RGM
Igeltzera poligonoa, 1 bis, A1 pab.
48610 Urduliz - Bizkaia

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA
Esteban Montorio

MAKETAZIOA
Monti


ISBN
978-84-8136-534-4

LEGE GORDAILUA
Bl. 3.128-08





1.
gauá



KARLOS: Gustavo Martín Garzo idazleak dioenez, bizitzan bi motatako hitzak daude: egunekoak eta gauekoak. Eguneko hitzek gure pentsamendua-rekin dute zerikusia, gure arrazoiarekin, gure erabakiekin. Gaueko hitzak, berriz, geure sentimenduetatik sortzen dira, geure irrika eta desioetatik, eta askoz ere libreagoak dira, benetakoagoak. Hala bada, gabon eta ongi etorri gaueko hitzen hitzordura, ongi etorri *Mundua lo dagoen bitartean* irrati saiora, sentimenduen, irrikaren eta desioen bilgunera.

»Goizaldeko ordu bata eta zazpi minutu diren honetan, mikrofonoak zabalik dituzu. Dei bat aski duzu, deitu 945 13 13 31 telefonora eta konta iezaguzu nahi duzuna, parte hartu gure

txatean, *mundualo.net* helbidean, edo idatz ieza-
guzu nahi duzuna.

»Erredakzioan, Eba Ugalde; teknikari lane-
tan, Luis Bolaño; pianoan, Chuck Aranbarri; eta,
mikrofonoan, ni neu, Karlos Fisher, zeure esa-
netara.

»Bai? Badirudi badugula baten bat gaueko hi-
tzak esateko prest.

MARKOS: Epa, gabon. Nik... zera... nik Juneri buruz
hitz egin nahi dut. Nik... Gasteizen ezagutu nuen,
unibertsitatean. Ez dut fakultatea aipatuko, ze ez
nuke nahi inortxok ere zeratzea, ezagutzea, ez
bera ez ni. June.

»Hasiera-hasieratik txoratu ninduen. Beraren
atzealdean esertzen hasi nintzen, gelan esan nahi
dut, atzealdeko mahaian.

»Beltzarana da June, ilea ere beltz-beltza du,
eta hasieratik ez dakit zer izan zen, haren triste-
zia; ez, tristezia ere ez zen, malenkonia, behar-
bada horixe zen; bai, malenkonia, eta zera, txo-
ratu egin ninduen. Bai, beharbada hori guztia
zen, eta nabarmena ez izatea, gainerako nesken
artean kasik oharkabean pasatzea, baina behin
arretaz begiratzen hasiz gero, ummm..., lilura-
garria da.

»Egun batean, ongi gogoan dut, haren ile lu-
ze bat, ile beltz-beltz bat nire mahaira jausi zen.

Suge baten antzera. Huskeria eman dezake, txorakeria, baina nik ile hura jaso egin nuen eta harrezkero kutxa batean gordea daukat. Harribitxi baten antzera. Premonizio bat iruditu zitzaidan. Bihozkada bat. Harrezkero suge batek heldu izan balit bezalaxe nabil, ispilu magiko bat zeharkatu izan banu bezalaxe.

»Bilbokoa zen June. Zera bat dauka ezkerreko masailean, orezta bat, lunar bat, eta nik orezta hura desio nuen, gero eta gehiago, obsesioraino, eldarnioraino. Eta beharbada hainbeste desio izatearen poderioz, azkenean gertatu egin zen.

»Gau batean, Gabonetako oporren aurretik, gelako afaria egin genuen txinatar batean. Nik, ahalik eta disimulatuen, Juneren alboan esertzea lortu nuen, eta horrekin nahikoa nuen, zoriontsua nintzen. Atzean egotetik alboan egotera alde handia dago, gero: presentzia, usainak, keinuak...

»Ikaskideak irakasleei buruz gaizki esaka eta trufaka aritu ziren, gero txistek eta pasadizoak kontatu zituzten, betikoa; baina bai June bai ni isil-isilik egon ginen. Baina komunikatzen.

»Ez dakit nola, ez dakit zein hurbildu zen lehena, zein gehiena, baina konturatu gabe gure belaunak mahaipen elkar ukitzen ari ziren, eta biok ere jakitun ginen. “Zoriontsu al zara?” galdegin zion nire belaunak harenari; “Zure alboan

bai” erantzun zidan harenak. Afari osoan belau-
nak pega-pega eginik izan genituen. “Zure falta
sumatzen nuen”, esan zioten elkarri. Ez dut kon-
tatuko belaunek elkarri esan zioten guztia, ez dut
den-dena kontatuko. Bakar-bakarrrik esan nahi
dut gau hartan Juneren orezta oso gertutik iku-
si ahal izan nuela, obsesioraino, eldarnioraino.

»Haren ileen basoan g aldu nintzen: ileak
usaindu nituen, laztandu nituen, dastatu nituen.
Zoragarria izan zen. Eta zera, barregarria ere bai.
Desiozko hiru hilabeteren ondotik, afariko de-
siozko hiru orduren ondotik, eskuketan hasi eta,
zera, zakila ukitu eta, hiru segundoren ondotik,
zeratu egin nintzen, zartatu, eta isuri egin nuen...

»Barregarria, bai, erridikulua esan nahi dut.
Dena dela, ederra da, gaupasa baten ondotik,
egunsentiak zu norbaiten eskutik helduta ha-
rrapatzea.

KARLOS: Ederra zure kontaketa izan da, Markos, bai-
na iruditu zait Juneri buruz hitz egiteko, tarteka
lehenaldia erabili duzula... Badirudi...

MARKOS: Bai, uste dut badakidala zergatik aritu nai-
zen lehenaldian hitz egiten. Batetik, gau hura ez-
kero ez dudalako antzeko plazerik sentitu... Bai,
esan egingo dut, gaueko hitzak dira: gau hura ez-
kero gure belaunak erabat urrundu ziren, ez naiz

berarekin korritu izan, berarekin batera esan nahi dut. Eta, bestetik, June desagertu egin delako, bereziki horregatik hitz egingo nuen lehenaldian. Beharbada goiztxo izan daiteke, baina...

»Gaur astelehena da, bo, asteartea jada, goizaldea, eta Junek joan den asteko ostiralaz geroztik ez du erantzuten. Haren pisukideek ere ez dute berri gehiagorik: ostiralean, bi astez behin edo egiten zuen bezala, Bilbora joan zela, baina ez dela itzuli; hori besterik ez dakite. Besterik ez.

»Telefonoz deitu diot, mezuak bidali dizkiot, sakelakora, helbide elektronikora. Ez du erantzuten. Azken deia gaueko hamabietan egin diot. Ostia... Larri nago, ez dakit zer egin. Horregatik deitu dut zure irratsaiora. Beharbada, norbaitek...

»June ez zegoen ongi, June ez da ongi egon. Eta gu geu ere ez gara ongi egon. Azken asteotan oso makal zegoen. Ez dakit, malenkonia baino zerbait gehiago zen. Nik, zera... Nik... Bar... barkatu. Ez nuen negarrik...

KARLOS: Lasai, Markos, lasai zaitetz. Gazteak zarete. Gauak hizketarako oso giro aproposa eskaintzen digu; baina, era berean, problemak, gauez, handitu egiten dira, biderkatu, mamu bihurtu ere bai. Baina etorriko da egun argia eta denak bere benetako neurria hartuko du. Deitu al duzu Juneren gurasoen etxera?

»Bai? Markos? Badirudi eskegi egin duela. Zinez, zeure esanetara gauzkazu, lagun.

»Tira, Chuck, jo doinu eder bat Juneren omenez, entzuten ari baldin bada ere. *Mundua lo dagoen bitartean* saioko entzuleek ongitxo dakite Chuckena ez dela musika hutsa; berak musikaz janzten ditu zuen sentimenduak, zuen kontakizunak. Zuek zer kontatu, halaxe jotzen du berak. Musikak gehiago sentitzen laguntzen digu, hobeki sentitzen...

»Uhinak zuretzat dira, maisu.



KARLOS: Biba zu, Chuk! Eta biba gure irratsaioko farozaina ere! Hutsik egin gabe, farozainak gaurkoan ere mezu bat utzi digu erantzungailu automatikoan.

»Edonon zaudela, farozain ez bazara ere, jakizu ulertzen dugula zuzenean deitu nahi ez izatea; baina, aldi berean, zinez eskertzen dizugu gurean egon nahi izatea. Atsegin handiz entzuten ditugu zure mezuak, zure gaueko hitzak. Aurrera, farozain. Nahi duzunean, Luis, haren mezua ipin dezakezu.

FAROZAINA: Gaurkoan Rosa Monteroren bi testu ekarri ditut. Batak honela dio: “Lehendabiziko aldiz

maitemintzen direnean, gazteek helmugatzat hartzen dute amodio berri hori, lehen amodio hori betirako biziko diren tokia izango balitz bezala; baina ez dira konturatzen lehen amodio hori oztopo lasterketa baten hasiera dela, hau da, biziko dituzten amodio gorabeheren abiapuntua besterik ez...”.

»Bigarren testua amodioaren iraupenari buruzkoa da: “Betirako pasioek batez beste sei hilabete irauten dute; eta gero, dena ongi ateraz gero, bizitza osorako amodio bihurtzen dira, hau da, gehienez ere beste bi urte iraun dezakete. Guztira, hasierako liluraren eta geroko iraupenaren artean, bi urte eta erdi, gutxi gorabehera”.

KARLOS: Zu etxerako, farozain. Zure mezuak beti ematen digute zer pentsa. Eta atsegin ditugu gurean.

»Eba, gure erredaktorearen kolaborazioek ere beti sentipen berezia eragiten digute. Eta Eba da goeneko gurekin da. Aurreko astean hainbat pertsona ospetsuren miseriak kontatu zenizkigun, eta hala ere pertsona horiek maitagarriago egi ten dituztenak.

»Gure entzuleek ongitxo dakiten bezala, Ebak astero gai bat ekarri ohi digu, eta gauero-gauero, ataletan azaldu. Baina gaur ez diguzu pertsona buruz hitz egingo, edo bai, Eba?

EBA: Bai eta ez, Karlos. Eta ezer baino lehen, gabon, entzule. Aste honetako gai nagusia zuhaitzak izango dira: zuhaitzak, bai, baina betiere gizakiekin harremanetan.

»Guk, kalekumeok orokorki hitz egiten dugu zuhaitzei buruz, baina aste honetan beren izeenez deitzen saiatuko gara: pikondoak aipatuko ditugu, pagoak, haritzak, mimosak, sekuoiak... Gauza estatikotzat ere jotzen ditugu, baina bizitzaz beterik daude. Eta, hain zuzen ere, sekuoia bat izango da gure lehen atal honetara ekarriko dugun zuhaitza, Luna sekuoia...

»Historia, hasi, orain dela mila urte baino gehiago hasi zen, garaitsu hartan sortu baitzen Kaliforniako Grizzly Greek parke nazionalako zuhaitz tantai hau. Baina mila urteren buruan, 1997an, enpresa batek sekuoiak mozteari ekin zion eta Julia Butterfly Hill, protesta gisara, Lunara igo zen.

»Neska bertan bi aste igarotzekoa zen; baina, gero, inor ordezkatzera etorri ez, eta bi urte igaro behar izan zituen...

»Lurretik 55 metrora, oihal batez estalitako plataforma ezdeus batean bizi izan zen. Eta ezer gutxi gehiago: su ttiki bat, ontzi bat bere beharritararako eta belaki bat ura biltzeko, eurirena nahiz elurrarena. Eta enpresakoak inguru-maria txikitzen, sekuoiak botatzen, su egiten; eta

helikopteroak bertatik bertara, hautsa harrotuz, kea zabalduz, eta zaintzaileak, Juliari inortxok ere jatekorik eraman ez ziezaion... Eta ekaitzak, eta haize bolada bortitzak, eta izotza.

»Eta, hala ere, bakardade gorri hartan Luna Juliaren babesle gertatu zen, eta gazteak zuhaitzaren mintzoa ulertu zuen: “Ekaitzarekin zuhaitzak ez dira tente eta buruzut egoten, haizearekin kulunkan ibiltzen dira. Utzi zeure burua, askatu, eta biziko zara”. Eta ekaitzek, astindu, gogor astindu izan zuten plataforma, eta neska gazteak negar egin izan zuen, eta garrasi, baina guztiarekiko atxikimendua galdurik –baita bere buruarekikoa ere–, ezeren loturarik gabe, libre, Lunarekin bat egitea lortu zuen.

»Bien bitarte guztian Julia sekuoian barrena bizi izan zen, gora eta behera, beti oinutsik. Katagorri bat, horra zer ematen zuen. Eta zuhaitzeko zoko-moko guztiak, intsektu eta txori guztiak ezagutu zituen. Ibilera horietan noizbait atzamarrak ere hautsi zituen, baina berak bakarrik zuzendu zituen, ohol ttikien bitartez.

»Zaintzaileei bere argazki bat jaitsi zien, goian troglodita bat ez, baina neska bat bizi zutela erakusteko. Ekintzaile baten laguntza ere jaso zuen. Zuhaitza teknologiaz bete zen eta Juliak zuzenean hitz egin ahal izan zuen AEBetako Senatuarekin.

»Bi urte, bi urte Italo Calvinoren *El barón rampante* haren antzera, zuhaitzaren gainaldean bizitzen. Eta Julia, bizirik irten zen, eta Lunak, lurrean sustraituago, goraka hazten jarraitu zuen, zerurantz...

KARLOS: Inondik ere historia ederra ekarri diguzu, Eba. Zu etxerako. *Mundua lo dagoen bitartean* irratsaioak garai hartan emanaldirik egin izan balu, atsegin handiz elkarrizketatuko genukeen neska ausart hori. Julia. Luna. Istorio ederra. Nik uste denok ere biharko atala entzuteko irrikaz utzi gaituzula.

»Gaztea zen Julia, zure istorioaren protagonista, Eba; gaztea da gaua eta gaztea da, azkenik, bere istorioa kontatzeko prest dugun munduki-dea ere.

»Luisek dio Hugo duzula izena. Tira ba, nahi duzunean, Hugo...

HUGO: Aupa, gabon. Aho txikiarekin ari naiz hizketan, ez dut nahi etxeko inork ni entzutea; baina, aldi berean, hots egin nahi dut, deiadar egin nahi dut eta lau haizeetara aldarrikatu, azkenean, aurkitu egin dudala nire gustuko ile-apaintzailea. Ilea moztu eta barregarri sentiarazten ez nauen ile-apaintzailea topatu dut.

»Pili da ile-apaintzailearen izena eta poema bat idatzi diot. Ongi iruditzen bazaizu, irakurri egingo dut.

KARLOS: Jakina, Hugo, adi gaituzu.

HUGO: Poema Piliri eskainia dago eta *Besteen begien beldur* du izenburua. Honela dio:

Besteen begien beldur
izaten naiz
ileapaindegitik
ile moztu berriarekin
irteten naizenean.

Zeren beti Agustin xaharrak
mozten baitit
eta artaziak zakar-zakar
dantzatzen baititu.

Ileetatik tira egiten dit Agustinek
eta serio begiratzen dit Agustinek
eta beti berdin mozten dit Agustinek.

Eta amak emandako dirua
amorrus ematen diodalarik
besteen begien beldur
irteten naiz,
arin baino arinago.

Saguzar bat naiz orduan,
enara bat, jaguar bat,
etxera ahalik eta azkarren
iritsi nahiz.

Besteen begien beldur,
ni ez naizen hori
ikus ez dezaten
itsusi, kaskopelatu, deseroso
ikus ez nazaten.

Eta amak beti esaten dit
horrela bai, ile motz-motzarekin
nagoela ni ongi.
Baina niri ez zait gustatzen
eta etxeko ispiluen beldur izaten naiz.

KARLOS: Mila esker, Hugo, zure poemagatik. Bejondeizula. Nik uste gutako askorentzat ezaguna dela aipatzen duzun sentipen hori.

HUGO: Bai, baina oraindik ez dut amaitu. Bigarren partea falta da, garrantzitsuena.

KARLOS: Ongi da, txo. Edozein modutan, eten bat egin beharra daukagu. Beste dei bat dugu. Juan da, geriatrikotik hoska ari da eta ezin diogu itxaronarazi.

»Zure baimenarekin, txanda-pasa egingo dugu, baina hark amaitu bezain laster zurea izango da hitza. Ados, Hugo?

»Orain zuri zuzentzen natzaizu, Juan. Gaur ere lo egin ezinik, ezta? Zurekin ikasi dugu, izan, hitzak hiru motatakoak izan daitezkeela: egunekoak, gauekoak eta sutondokoak, hau da, beheko suaren inguruan kontatzen ziren ipuineta-koak.

»Eta, zein ipuin ekarri diguzu gaur?

JUAN: Gaurkoan Miseriaren ipuina ekarri dizuet. Ebak sekuoia bat aipatu du eta nik laranja arbolaz jardungo dut. Ea gustuko duzuen.

»Aspaldi samarrean, hiri baten kanpoaldean, Miseria izeneko gizon xahar pobre bat bizi zen. Etxola ere xaharra zuen, baina atarian oso ale ederrak ematen zituen laranja arbola bat zeukan. Zorigaitzez, zuhaitz eder hura hirirako bide ondoan zegoen eta bidaiari askok –toju, toju, toju..., barkatu; ezin dut erre, baina tabakoari ere ezin utzi–, bidaiari askok laranjak lapurtzen zizkioten.

»Egun batez, San Pedro etxola ondoan gelditu zen, bideak nekatua. Miseria probatzearren, amona errukarriaren itxurapean, santuak jateko zerbait emango ote zion galdegin zion: “Zuhaitz hori besterik ez dut, baina hortik nahi duzuna hartzen ahal duzu”, Miseriaren arrapostua.

»San Pedrok laranja gozo batzuk dastatu, eta saritzat zer nahi zuen galdegin zion Miseriari: “Nik laranjondoaren fruituekin aski nuke bizitzeko, baina hemendik igarotzen diren askok eta askok bat ere gabe uzten naute. Hara: atsegin nuke laranjak lapurtzera datorrena zuhaitzean itsatsia geratzea eta, nire baimenik gabe, handik jais-terik ez izatea”. “Hala izan bedi”, esan zion santuak agurtzearekin batera.

»Biharamunean zalgurdi bat igaro zen, hirira bidean jaun bat eta haren alaba zeramatzala. “Aita, zein politak diren urrezko sagar horiek! Bat nahi nuke”, tematu zen neskatila.

»Jaunak gidariari bat hartzeko agindu zion, baina zuhaitzetik jaitsi nahi izan zuelarik, josi-josirik geratu zen. Jaunak itzultzeko agintzen zion, baina morroia ezin bada handik jaitsi. “Jauna, arbola xarmatua dago; adarretan tinkatua nauka”.

»Jauna saiatu zen, baina hura ere gidaria bezalaxe geratu zen: zuhaitzetik jaitsi ezinik. Eta etxolaren atetik, ezkutuan, Miseria kur, kur, kur irriz ari zen. Gero, diru apur baten truke joaten utzi zien.

»Egun batez, Heriok jo zuen Miseria gaixoa- ren atea. “Joateko ordua duk. Presta hadi!”. Orduan, Miseriak: “Ez izan halako presarik”.

»Herio sumindurik zegoen eta etxolatik lehenbailehen irteteko agindu zion Miseriari. “Joan

aurretik laranjatxo bat jan nahi nuke”, eskatu zion agureak apal-apalik.

»Herio igo zen zuhaitzera, baina hura ere jaitsi ezinik geratu zen. Haren biraoak eta hitz ustelak! Baina azkenean eztiki eta astiro hasi zen: “Miseria, libra nazak hemendik”. Baina Miseriak erantzun zion: “Ezta pentsatu ere. Gero ni zurekin eramateko!”. Eta, Heriok, etsia harturik: “Ongi duk: hitz ematen diat hik deitzen nauan arte ez naizela bila etorriko”.

»Miseriak askatu zuen Herio eta geroztik ez da itzuli Miseriaren etxolara. Horregatik, esaera da: *Mundua mundu den bitartean, miseria bertan izango da.*

KARLOS: Mila esker zure ipuinagatik, Juan. Beldurrezko ipuina iruditu zait kasik... Zure hitzek sutondoko berotasuna zabaltzen dute. Alabaina, gauekoetara itzuli beharra daukagu. A, eta zaindu katarro hori.

»Oraindik ere zain dugu ile-apaintzaileari poema bat eskaini dion mutikoa. Hor al zaude, Hugo?

HUGO: Bai, hemen nago poemaren bigarren zatiarekin. *Besteen begien irrikaz* du izenburua, eta Pili eskaintzen diot:

Besteen begien beldur
izaten nintzen lehen
ile-apaindegitik
ile moztu berriarekin
irteten nintzenean.

Zeren gaur Pili gazteak
moztu baitit
eta artaziak kontuz-kontuz
dantzatu baititu.

Burua garbitu dit Pilik
eta irribarre egin dit Pilik
eta desberdin moztu dit Pilik.

Eta amak emandako dirua
pozarren eman diodalarik
besteen begien irrikaz
irten naiz,
astiro baino astiroago.

Barraskilo bat naiz orain,
dortoka bat, kirikiño bat,
etxera ahalik eta beranduen
iritsi nahiz.

Besteen begien irrikaz,
ni naizen hori
ikus dezaten
galant, apain, itxuroso
ikus nazaten.

Eta amak gaur kopeta ilundu du
eta, begira-begira, esan dit
oso ongi nagoela.
Eta niri ere gustatzen zait
eta ispiluak gauza bera esan dit.

KARLOS: Biba zu, Hugo, eta biba Pili. Oso ongi eza-
gutarazi dizkiguzu zure sentipenak. Bejondei-
zula. Nahi duzun arte, lagun.

»Baina beste eten bat egin beharrean gaude,
eta Chucki txanda eman.

»Uhinak zuretzat dira, maisu.



KARLOS: Zure notek on handia egiten digute, Chuck.
Behar-beharrezkoak ditugu zure pausaldiak.
Gaua, baina, aurrera doa eta telefonoaren beste
aldean lagun bat dugu zain, X deitzea nahi duen
mundukide bat.

»Nahi duzunean, X. Ongi etorri gure saiora.

x: Ez dakit kontaktzen asmatuko ote dudan. Ez naiz
etorri handikoa. Ez, ez naiz. Zerbitzugune bate-
ko zerbitzaria naiz, tabernako zerbitzari soila bai-
no ez.

»Ez dakit istorio hau ezagutzen duzuen, se-
guruenik hiriko elezahar horietako bat baino ez

da izango, baina badaezpada ere kontatu egingo dizuet.

»Gau batez, gizon bat gasolindegi batean geratu da eta, langileak depositua bete diolarik, ordaintzera joan da; gizona autora itzuli da gero eta, barnera sarturik, aurrera egin du; errepidean doala, ondok oaren eskua sumatu du izterrean, bularraldeko ileetan eta, bat-batean, oihu bat: gizona, nonbait, autoz nahastu da eta emakume hori, emakume hori ez da bere emaztea; antzeko autoa, antzeko emakumea, eta nahaste-borrastea...

»Orduan jakin du emakume ezezagun hori, bera bezala, gasolindegi berean gelditu dela, lankide batekin, eta nahastu; eta haiek hotel batera joatekoak zirenez, bikote osatu berria ere harantz abiatu da.

»Hoteleko tabernan zain egon dira, hurbil, gero eta hurbilago, gero eta gozoago. Baina gaua eroa izan, eta laster alboko hotel batera jo dute gela bat hartzera; harrerakoari eskupeko bat eman diote: norbaitek haien galdera egiten baldin badio, han ez dira agertu, han ez ditu ikusi. Eta igo dira gelara eta korridorean hara non ikusi duten, beste gela batetik irteten, beste bikote osatu berria, hau da, gizonaren emaztea eta emakumearen lankidea, gela batetik irteten, musuka... Futxo!

»Ez dakit zergatik kontatu dudan hau. Ez dakit zertara datorren. Esan nahi dut nik ere zerbitzugune batean egiten dudala lan, eta bertan gauza asko ikusia naizela, asko, eta litekeena dela gure gasolindegian ere noizbait halako nahasketarik gertatu izana. Nahiz eta niri ez zaidan halako loteriarik egokitu. Esan nahi dudana da ni aurreko ostegunean lanean ari nintzela. Ordu txikiak ziren eta, inor ez zebilenez, irratia piztu nuen: *Mundua lo dagoen bitartean*.

»Kasualitatez, emakume bat sartu zen tabernara eta irratia itzali behar izan nuen. Musika ipini nuen berriro. Maltako whiskiren bat eskatu zuen, edozein. Four Roses atera nik. Nahigabetua zirudien, leher egina, eta edabeak, fuerteen izanik ere, nekez lagunduko ziola pentsatu nuen.

»Ez dakit nola esan. Batzuetan, bezeroren batekin bakarrik, buruz buru geratzean, deseroso sentitu izan naiz, baina emakume hura gustatu egin zitzaidan. Bazuen zerbait.

»Egia esan, etxetik alde egin berria zela pentsatu nuen. Abandonatu itxura harekin. Ez dakit. Akaso hiriko elezahar horiek izango zuten eraginik nire uste horretan. Akaso... Une aproposa zen akaso.

»Baina hurbildu, ez hurbildu nengoela, hizketan hasi, ez hasi, tipustapastean alde egin zuen.

Buru imintzio bat agur moduan. Berak ez daki, baina nik amaitu nuen haren whisky mortal garratz hura. Eta berriro ere bakarrik geratzean, ba berriro ere piztu nuen irratia.

»Berehala antzeman nion. Futxo! Bera ez zen ba! Maltako whiskia eskatu zidan berbera ari zen irratian hizketan! Berak deitu ez zuen ba! Irene... Izen edo ezizen hori erabili zuen, behinik behin. Gogoan izango duzue, noski, aurreko ostegunean zuen irratsaioa deitu zuen emakumea. Eta, ez dakit. Berriro ere kasualitateen kontu hori, bakarrik bera, bakarrik ni...

»Halako batean, tabernako atea giltzaz itxi, eta aparkalekura jo nuen. Gazte batzuk zebiltzan, autoetako atea parez pare zabalik, txunba-txunba, dantza batean. Gazteen asteburua ostegunean hasten da orain. Eta Ireneren autoa ere hantxe zegoen. Eta ez dakit kontaktzen asmatuko dudan. Planta txar-txarrik ere ez dut... Kontua da hurbildu egin nintzaiola...

»Gaueko hitzak, Karlos, ba to gaueko hitzak... Baina ikusten duzunez, ez naiz etorri handikoa. Kontua da, zera, kask-kask jo nuela haren auto-ko leihatila. Nahi, nahi... nik txortan egin nahi nuen. Hiriko elezahar horietan akaso gure beldur eta desioak kanporatzen ditugu. Ez dakit. Zurekin hizketan ari zela, zahartzen ari ote den, zalantza hori zuela esan zizun, baina bai zera.

Emakume eder askoa da. Eta hantxe zegoen, niri begira.

»Ni agertzea eta autoko seguruari eragitea, dena bat izan zen. Ez ninduen, hala ere, oso mehatxukor ikusiko. Edo ezagutu egingo ninduen. Azken batean, whisky bat zerbitzatu berria nion. Atea zabaldu zuen eta alboko eserlekuan eseri nintzaion.

»“Entzun zaitut”, esan nion, edo antzeko zer bait. Begiak itxi zituen. Damutu izan balitz bezala. Baina argi zegoen emakumeak ez zuela nire beharrik. Ez zuela nire behar berdinek, alegia. Ez dakit nola esan. Kontsolamendua behar zuen beste ezer baino gehiago. Eta orduan bururatu zitzaidan.

»Bezperan, zerbitzuguneko tabernara gizon bat heldu zela esan nion. Tipustapastean. Eta litekeena zela hura izatea berak espero zuena. Eta berak bezala maltako whiskia eskatu zuela. Eta galdegin zidala ea emakume bakarti bat ikusia nuen. Tabernan edo ostatu inguruan. Eta nik ezetz. Eta “Tamala” esan zuela. Dena gezurra. Berak espero zuen gizona ez zen bezperan etorri. Halakorik ez nuen ikusi nik. Baina nik Irene delako hura nola edo hala lasaitu nahi izan nuen. Gizona, maitalea, urteroko hitzordura egun bat aurreratu zela esanez lasaitu nahi izan nuen. Dena gezurra.

»Emakumeak begietara begiratu zidan. “Ustedut beste whisky bat behar dudala”, esan zidan. Putakume hutsa naiz. Gaua luzea zen artean. Bezerorik ez zegoen. Irenek hartutako hoteleko gela artean libre zegoen eta, akaso, whiskia lagun, gizonez nahastu zitekeen.

»Ni kontsolamendua emateko prest nengoen. Tabernara bezero gutxi inguratuko zen. Tarte bat izango zen. Inor ez zen konturatuko. Baina nire harridurarako... ez, hobeki esan, emakumearen harridurarako, gazte txunba-txunberoen aurretik pasatzean, “Ama!” entzun genuen argi-argi. “Zer egiten duzu hemen, gizon horrekin...?”. Gaiztoz esandako “Horrekin” hori, hori, ni nintzen. “Oskar”, atera zitzaion emakumeari. Futxo eta erre-futxo!

»Emakumea, Irene, bere autora oldartu zen, negarrez. Giltzari eraginik, ziztu bizian irten zen. “Tabernara itzuli beharra daukat”, esan nion mutilari, ez zerurako ez lurrerako. “Ez da zuk pentsatzen duzuna”. Eta saguzarra ilunpetan bezala desagertu nintzen.

»Whiskia nik hartu behar izan nuen. Maltakoa. Bakarrik. Zurrut mortal garratzetan. Ez dakit esplikatu naizen.

KARLOS: Zuk uste baino hobeki kontatu duzu, X, benetan. Baina zure mezua behar bezala ulertzeko

agian Ireneren deia entzutea komeni zaigu, denek ez baitzuten osteguneko dei hura entzungo. Baina entzun genuenok oso gogoan dugu inondik ere.

»Ez dakit, Luis, berreskuratzerik izango dugun. Bai? Ah, teknologiaren abantailak... Biba zu.

»Hona hemen, beraz, entzule, Irene delako horrek joan den asteko ostegunean egin zigun dei... nola esan, ez, hobe izango da nork bere adjektiboa ipintzea... Hona hemen, beraz, Ireneren deia, X-ena argitzera datorrena.

IRENE: Ze materia estrainioa den... haragia, substantzia biziduna, arimaduna.

»Ez dakit nork esana den, Raymond Chandler-ek agian, ba hark edo dena delakoak esan zuen amodioa alkohola bezalako dela, alegia, lehen musua magia dela, bigarrena intimitatea eta hirugarrena errutina... Ez dakit nola esan: beraren eta nire artekoa ere agian errutina bilakatu da...

»Orain dela hiru urte gertatu zen, Parisen, Orlyko aireportuan. Ni Bilborako hegaldiaren zain nengoen, baina gau hartan ekaitz handia piztu zen Frantzian. Ekaitz handia... Hegaldiak bertan behera utzi behar izan zituzten eta bidaiariok hotel batera eraman gintuzten.

»Harakoan, autobus berean, elkarren alboan egokitu ginen. Geletako giltzak ere bata bestea-

ren ondotik eman zizkiguten. 415a berari; 416a niri. Apenas hitz egin genuen, ez autobusean, ez igogailuan. Ni ezkondua nengoen, nago, baina ez nuen sentitu inor traizionatzen ari nintzenik. Esan nahi dut gelara erretiratu, oheratu, ezin lokarturik egon, eta beraren atea jo izan ez banu, orduan, orduantxe traizionatuko nuela neure burua. Nire gorputzak behar zuen, nire gorputzaren arimak. Atzerapen hura patuaren opari bat zen. Halaxe sentitu nuen.

»Gizon ahula da, pausatua. Oraindik ere garbi-garbi datorkit gogora haren izerdi usaina. Hain sarkorra. Autobusean eta igogailuan garbi-garbi heldu zitzaidan. Bildu egin ninduen. Bere gelako atea zabaldu zidanean ere ez zen hitzik izan. “Espero zintudan” edo “Desio zintudan” adierazi zidan, hala ere, hitzik gabe. Bera ere agian ezkondua izango da. Eraztunik ez zeukan, baina.

»Gaua, gure gaua ere ekaiztsua izan zen eta, hurrengo urteetan, egun berean, gau berean berriro ere elkartzea erabaki genuen. Orain nagoen autobide honetako zerbitzuguneko hotel baztertu diskretuan, gure hirien arteko erdibidean. Ez da batere *chic*, baina ez digu batere axola izan. Berari bururatu zitzaion. Eta elkarren berri gehiagorik ez izatea, ez helbide, ez telefonorik. Patuaren opari...

»Pariskoaren ondotik, bigarren aldiz geratu ginenean, agian bigarren musua bezalako zer-

bait izan zen: intimitatea... Baina izan zen magiarik. Urte osoan une horren zain egon eta gero, ez da harritzekoa.

»Iaz ere ez genuen huts egin, eta niretzat artean ere errutina baino zerbait gehiago izan zen. Ez dakit. Ez dakit amodioa alkohola bezalakoa den ala ez. Orain dakidana da aurten ez dela etorri, laugarren hitzorduan huts egin duela, ez dela etorri eta nik alkohola hartu behar izan dudala. Malta-koa, berak eskatzen zuen bezala. Bi kristalekin. Bi hurrupatan hustu dut. Hondarra baino ez dut utzi...

»Eta orain aparkalekuan nago, bakarrik auttoan, abail-abail egina, giltzari eragin gabe. Zuei entzuten. Auskalo zergatik berandutu... kale egin duen beraren zain. Beraren izerdi usainik gabe.

»Orain arte ez diot inori ezer kontatu. Eta hara non, orain... Baina haragiak arima izan behar du, bestela ez bainuen oinaze hau sentituko. Es-ku bat. Laztan bat. Agian berarentzat errutina bilakatuko zen. Agian hirugarrengoan zahartzen ikusiko ninduen.

»*Magia. Malenkonia.* Ez dira gogoko ditudan hitzak, hitz higatuak dira, baina nola adierazi nire haragiak zer hutsune sentitzen duen, nola azaldu zer den gabezia etsigarri hau? Errutinara nik itzuli beharra daukat.

»Itxaron! Auto bat dator. Ez, ez da bera. Beste auto bat. Gazteak dira. Ateak zabaldu dituzte.

Musikak gainezka egiten die. Seguruenik iritsiko zaizu oihartzunik. Hori mugitu beharra, hori. Artega dabilta. Haiek ere bai.

»Ez dakit nola adierazi. Ez didate inbidiarik pizten. Ez ditut zoriontsu ikusten. Baina neure burua ere ez dut zoriontsu ikusten. Aspaldian ez. Ez pentsa. Akaso bizitzera ohitu naiz...

»Ordainduta ere, orain ez nuke neure burua autoaren barneko ispiluan ikusi nahiko. Orain ez. Uste dut sekulako depresioa harrapatuko nukeela.

»Eta galdera bat, galdera flash bat gazte horiei begira: gaur dakidanarekin, nola biziko nintzateke gaztetxo horien antzera orain 14, 16 urte bannitu? Ez dakit ez ote nagoen bizitzeaz apur bat nekatua... Ez dakit horrela adieraz daitek een. Aparkaleku honetan bakarrik, erabili ez dudan gela utzi berritan, patetiko samar sentitzen naiz. Zorioneko ez, behintzat.

KARLOS: Zirrargarria. Ireneren mezuari adjektiboa ipini behar diot: *zirrargarria*... Ez dakit zuek zein ipiniko zenioketen. *Asaldagarria* agian... Eta, akaberan, zoriontasunari buruzko galdera zorrotz hori...

»Ez da berriketa. Ireneren deia gogoangarria gertatu zitzaidan. Txatean ere hainbat mezu eragin ditu. Baina gaur ez dugu denbora gehiagorik.

»Goizaldeko laurak hurbiltzen ari dira, kasik hiru ordu jardun dugu kontu kontari *Mundua lo dagoen bitartean*. Eta gaur, asteko lehen irratsaioa denez, ohi bezala, heldu da asteko igarkizuna azaltzeko unea. Eta ez ahantzi Kariberako bidaiaria bat dagoela jokoan. Erne, beraz.

»Hona hemen aste honetako enigma txikia, *Mundua lo dagoen bitartean* esna egon gaitzen, ea: egunkari bateko zuzendaria bidaiaria luze bat egitekoea da, eman dezagun Japoniara, eman dezagun Australiara; abiatu aurretik, baina, goizean, erre-dakziora joan da sartu-irten bat egitera, eta hara non, gau zaintzaile bat kopetilun hurbildu zaion eta esan dion: “Bart amets asko egin dut, baina, amesgaizto batean, zuk hartu behar zenuen hegazkinak istripua izan du, airean lehertu da eta inortxo ere ez da bizirik irten; nik uste hobe duzula bidaiaria atzeratzea”; hala bada, zuzendariak bidaiaria badaezpada ere atzeratu du eta harri eta zur geratu da eguerdiko albistegia ikustean: berak hartu behar zuen hegazkinak istripua izan du aireratu eta berehala; bidaiari guztiak hil dira. Zuzendariak berehalakoan deitu dio zaintzaileari eta, zero askoko txeke bat sinatzearekin batera, ustekabe kanporatu egin du. Eta hona galdera: bizitza salbatu baldin badio, zergatik izan da hain esker txarrekoa, zergatik utzi du lanik gabe?

»Ea ba, gautxoriak, ea nor den gai aste honetako igarkizuna asmatzeko. Berriro ere gogorazi nahi dizuet asmatzailearentzat sari bikaina dugula: bi lagunentzako bidaia bat, nora eta Karibera! Maitalearen, paisaiaren, ur turkesa epelelen mimoak jaso ditzazun.

»Bihar, agian, izango dugu asmatzailerik. Bihar, agian, Markosek deituko du June agertu dela esanez...

»Bien bitartean, gabon eta bizi uros.